



Education and Culture DG

Mugikortasun egonaldien araudi orokorra

2024-2025 ikasturtea

AURKIBIDEA

1. STUDIES EGONALDIAK: ERASMUS+, SICUE, LATINOAMERIKA ETA MUNDUA	3
1.1. AUKERATUA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK	3
1.2. PROZEDURA	4
1.2.1. Aurkezpenak.....	6
1.2.2. Destinoen esleipena.....	6
1.2.3. Nominazioa	6
1.2.4. Kanpoko unibertsitatean inskripzioa (Application form).....	7
1.2.5. Egondiaaren aurreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+).....	7
1.2.6. Egondiaaren aurreko beste dokumentu batzuk (SICUE, Latinoamerika eta Mundua).....	7
1.3. MATRIKULAZIOA HUHEZIn.....	8
1.4. KREDITU KONBALIDAZIOA	8
1.4.1. Konbalidazioak: Hezkuntza graduak	9
1.4.2. Konbalidazioak: Ikus Entzunezko Komunikazioa gradua.....	10
1.4.3 Konbalidazioak: Humanitate Digital Globalak gradua.....	11
1.5. BIP (BLENDED INTENSIVE PROGRAMMES)	11
1.6. OSTATUA.....	12
1.7. OHARRAK	12
2. PRACTICUM EGONALDIAK: ERASMUS+, ESTATU ESPAINIARRA, LATINOAMERIKA ETA MUNDUA	13
2.1. AUKERATUA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK	13
2.2. PROZEDURA	14
2.2.1. Aurkezpenak.....	16
2.2.2. Destinoen esleipena.....	16
2.2.3. Hitzarmena	16
2.2.4. Egondiaaren aurreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+).....	17
2.2.5. Egondiaaren aurreko beste dokumentu batzuk (Estatu Espainiarra, Latinoamerika eta Mundua).....	17
2.3. MATRIKULAZIOA HUHEZIn.....	17
2.4. OSTATUA.....	17
3. AMAIERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	18
3.1. ERASMUS+ STUDIES EGONALDIA	18
3.2. ERASMUS+ PRACTICUM EGONALDIA	18
3.3. SICUE EGONALDIA	19
3.4. ESTATUAN PRACTICUM EGONALDIA.....	19
3.5. LATINOAMERIKA ETA MUNDUA STUDIES EGONALDIA	19
3.6. LATINOAMERIKA ETA MUNDUA PRACTICUM EGONALDIA	19
4. ADMINISTRATIBOKI BETE BEHARREKO BESTE BALDINTZA BATZUK	20
4.1. ALDAKETAK	20

4.2. GARRAIOAREN ETA ALOJAMENDUAREN DEUSEZTAPEN ASEGURUA.....	20
4.3. COVID 19AREN ONDORIOZ EGIN BEHARREKO FROGA MEDIKOAK	20
4.4. EZOHIKO EGOERAK- UKOAK	20
4.5. OSTATUA.....	20
5. ASEGURUAK	21
5.1. EUOPAR BATASUNA ETA SUITZA (Turkia eta Erresuma Batua kanpo daude).....	21
5.2. TURKIA, ERRESUMA BATUA, LATINOAMERIKA, EEBB ETA MUNDUA.....	21
6. BISA.....	23
7. BEKAK ETA DIRULAGUNTZAK	25
7.1. ERASMUS+ BEKA.....	25
7.2. EUSKO JAURLARITZAKO MUGIKORTASUN BEKA	26
7.3. BESTELAKO DIRULAGUNTZAK.....	27
8. ERREFERENTZIAZKO PERTSONAK.....	28
9. ERANSKINAK.....	29
9.1. EUROPAKO ASEGURU POLIZAREN EREDUA.....	29
9.2. EUROPATIK KANPOKO ASEGURU POLIZAREN EREDUA	32

1. STUDIES EGONALDIAK: ERASMUS+, SICUE, LATINOAMERIKA ETA MUNDUA

Atal honetan, Studies egonaldietan parte hartzeko prozedura eta baldintzak azalduko ditugu.

1.1. AUKERATUA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hizkuntza ofiziala edo nagusia ingelesa duten destinoetan, esleitutako erakundeak eskatzen duen ingeles maila egiaztatu behar da:

- B2 maila, Cambridge First Certificate, IELTS 5.0 edo TOEFL 500 maila egiaztatu behar da. Bereziki kontuan hartuko dira azken bi urteetan eskuratutako agiriak.
- Ikasleak horrelako ziurtagiririk ez badu, HUHEZIn hizkuntza azterketa egiteko aukera izango du, maila egiaztatzeko.

Europako beste hizkuntzaren batean B2 maila izanez gero, jarri harremanetan, mesedez, nazioarteko arduradunarekin.

Espediente akademikoa:

- Gradu bakoitzean, irizpide jakin batzuk beteko dira:
 - Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleek, Studies egonaldia EAetik kanpo egin ahal izateko, esleipena egin aurreko ikasturteetako modulu guztiak gaindituta eduki behar dituzte.
 - Humanitate Digital Globalak graduko ikasleek, Studies egonaldia EAetik kanpo egin ahal izateko, esleipena egin aurreko ikasturteetako modulu bakarra izan dezakete gainditu gabe.
 - Haur Hezkuntzako edota Lehen Hezkuntzako graduko ikasleek, Studies egonaldia EAetik kanpo egin ahal izateko, esleipena egin aurreko ikasturteetako modulu guztiak gaindituta eduki behar dituzte, eta, eskaria egiten duten momentuan, ikasturteko modulu bakar bat izan dezakete gainditu gabe. Esleipena baliagarria izan dadin, hurrengo ikasturtera pasatzeko baldintzak bete behar dituzte ikasleek (ikus araudi akademikoa).
- Esleipenaren momentuan kalifikatuta dauden modulu guztien batezbestekoa hartuko da kontuan.
- Nahiz eta esleipenaren momentuan baldintza akademikoak bete, ikasturtean zehar Gradu Koordinazio Batzordeak ondorioztatzen badu ikasle batek ez dituela betetzen mugikortasun programan parte hartzeko baldintza akademiko guztiak, mugikortasun programatik kanpo geldituko da ikasle hori.
- Itxaron zerrendan baldintza akademikoak betetzen dituen ikaslerik badago, hari eskainiko zaio libre geratu den tokia.

Oharra: hautatuak izateko orduan, lehentasuna izango dute oraindik atzerrian egonldirik egin ez duten ikasleek. Gure asmoa da ahalik eta ikasle gehienek izatea atzerrian egonaldi bat egiteko aukera.

1.2. PROZEDURA

Jarraian, Studies programako prozedura azalduko dugu; lehenik, zerrendatuta emango dugu; gero, eskema-irudi baten bidez, eta, ondoren, puntuz puntu azalduta. Prozedura errespetatzen ez duten ikasleak mugikortasun programatik kanpo geldituko dira, Nazioarteko Batzordeak hala erabakitzen badu.

Prozeduraren faseak hauek dira:

1. Aurkezpenak
2. Eskaera fasea
3. Behin-behineko esleipena
4. Behin betiko esleipena
5. Esleitutako destinoaren onarpena
6. Izendapena: Mondragon Unibertsitateak (HUHEZIK) egingo du, kanpoko unibertsitateak esandako moduan eta epean. Fase honetan, ikaslea ezingo da inolaz ere kanpoko unibertsitatearekin harremanetan jarri.
7. Kanpoko unibertsitatearen posta bidezko mezua jasotzea: ikasleak jasoko du. Ikaslearen erantzukizuna da mezu horretan jasotako informazioa Nazioarteko Batzordearekin partekatzea.
8. Application Form / Inskripzioa kanpoko unibertsitatean: ikaslearen ardura da. Kanpoko unibertsitateak emandako irizpideen arabera egin beharko du.
9. Onarpena: azken hitza kanpoko unibertsitateak izango du beti. **Onarpen gutuna** jasotzean, ikaslearen ardura izango da Nazioarteko Batzordeari birbidaltzea.
10. Logela eta bidaia: ikaslearen ardura da haiek kudeatzea. Deuseztapen aseguruak kontratatzea gomendatzen dugu.

STUDIES EGONALDIEN PROZESUA

1 AURKEZPENAK

2 ESKAERA FASEA

3 BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA

Zuzenketa epea irekiko da: ikasleak bere esleipenarekin zerikusia daukan edozein ohar helarazi diezaioke Nazioarteko Taldeari, honek ezarritako modu eta epean.

4 BEHIN BETIKO ESLEIPENA

5 ESLEITUTAKO DESTINOAREN ONARPENA ETA IKASTAROA

6 NOMINAZIOA

Mondragon Unibertsitateak (HUHEZIK) egingo du nominazioa kanpoko unibertsitateak esandako modu eta epean. Ikasleak ezingo du inolaz ere kanpoko unibertsitatearekin harremanetan jarri.

7 KANPOKO UNIBERTSITATEAREN POSTA JASO

Ikasleak egingo du. Ikaslearen erantzukizuna da bertan jasotako informazioa nazioarteko taldearekin partekatzea.

8 INSKRIPZIOA KANPOKO UNIBERTSITATEAN

Application form. Ikaslearen ardura da kanpoko unibertsitateak emandako irizpideen arabera inskripzioa egitea.

9 ONARPENA

Azken hitza kanpoko unibertsitateak du beti.

10 LOGELA ETA BIDAIA

Ikaslearen ardura da. **Deuseztapen** aseguruarekin kontratatzea gomendatzen da.

Mondragon Unibertsitatearen (HUHEZIKren) ardura

Ikaslearen ardura

Kanpoko Unibertsitatearen ardura

1.2.1. Aurkezpenak

Aurkezpenak egingo dira HUHEZIKoren 3 campusetan (Aretxabaleta, Bilbao AS Fabrik, Eskoriatza). Aurkezpenetan, mugikortasun programan parte hartzeko prozedura azalduko dugu, eta dokumentazio eta beka aukeren berri emango. Informazio guztia eta eskaera orria MUDle-n daude eskuragarri.

Ikasleak MUDle plataformara igo beharko ditu **eskaera orria** eta **hizkuntza gaitasunaren agiria**. Gustukoaren aukeren arabera ordenatu beharko du destinoen zerrenda, eta kontuan izan behar da nazioarteko egonaldietan parte hartzeko deialdi bakarra egoten dela ikasturteko. Behar duenak hizkuntza probak egingo ditu Fakultatean bertan.

Eskaera egitean eta destinoa aukeratzean, kontuan izan behar da destino jakin batzuetan **soilik hizkuntza agiri ofizialak** onartzen dituztela. Informazio hori aurkezpenetan emango da.

Ikasleak ezingo du **ikasturte berean** hautatu mugikortasun programak eskaintzen dituen **egonaldi mota bat baino gehiago**. SICUE, ERASMUS+, Latinoamerika eta Mundua egonaldiak ez dira bateragarriak. Bakarra aukeratu beharko du ikasleak. **Practicum programa eta STUDIES programa bateraezinak izango dira ikasturte berean. Ikasketa egonaldia aukeratzen duenak ezin izango du practicum egonaldia aukeratu.**

Hezkuntza graduetan ezin izango dira 2 ikasketa egonaldi egin. 3. mailan ikasketen mugikortasun programan parte hartzen duten ikasleek ezin izango dute 4. mailan ikasketen mugikortasun programan parte hartu.

Eskaera egiteko, ezinbestean onartu beharko dira mugikortasun programako araudiak ezartzen dituen baldintzak.

1.2.2. Destinoen esleipena

Egonaldiko destinoen esleipena egiteko prozesua honako hau izango da:

1. Eskaera guztiak aztertu ondoren, EAetik kanpo egonaldia egingo duten ikasleak aukeratuko ditu HUHEZIKo Nazioarteko Batzordeak, irizpide hauek kontuan izanda:
 - **Espediente** akademikoa
 - Kanpoko unibertsitateak eskatzen duen **hizkuntza** mailaren egiaztapena
2. Esleipenak MUDle-n argitaratuko dira, dagokion epean.
3. **Behin betiko esleipen hori astebeteko epean onartu edo uko egin beharko dio ikasleak**, MUDle-n aktibatuko zaion atalean. Behin onartuta, ez da aldaketarik ez eta ukorik ere onetsiko. Onarpenik ematen ez duten ikasleen kasuan, onartutzat emango da esleitutako behin betiko destinoa, eta ez da aldaketarik ez eta ukorik ere onartuko.
4. Izendatua izateko, ezinbestekoa izango da mugikortasun programaren baldintzak onartzea eta antolatuko diren mintegi edo bileretan parte hartzea.

1.2.3. Izendapena

Destino bat esleitzeak ez du esan nahi egonaldia gauzatuko denik. HUHEZIKo ikasle horren izendapena egingo du kanpoko unibertsitatean. **Ikasleak ezingo du bere kabuz kanpoko unibertsitate horretan matrikula egin. Halaber, ezin izango da kanpoko unibertsitate horrekin bere kabuz harremanetan jarri.**

Oharra: azken hitza atzerriko unibertsitateak izango du. Ikasleak aukeratutako destinoetan lekurik ez badago, Fakultateak esleituko dio ikasleari aukeratu duen programako beste unibertsitate bat (Europa, Mundua edo SICUE).

1.2.4. Kanpoko unibertsitatean inskripzioa egitea (Application form)

Izendatu ondoren, inskripzio eskaera egiteko beharrezkoak izango dituen dokumentuak jasoko ditu ikasleak kanpoko unibertsitateak: plataformetarako sarbideak eta prozedura irizpideak. Ikaslearen ardura da inskripzio eskaera egitea. Horretarako, une oro izango du nazioarteko koordinatzailearen laguntza.

Inskripzio eskaera egin ondoren, ikaslea onartzen duen ala ez jakinaraziko du kanpoko unibertsitateak. **Ikasleak jasoko du jakinarazpena, eta haren ardura izango da HUHEZIKO Nazioarteko Batzordeari horren berri ematea.** Kanpoko unibertsitateak ikaslea onartzen badu, orduan ziurta genezake ikaslea hara joango dela. Ikasleak, onarpen gutuna jasotzean, Nazioarteko Batzordeari bidali beharko dio.

Akordio akademikoa edo Learning Agreement-a ikasleak osatu behar du. Dokumentua betetzeko irizpideak Nazioarteko Batzordeak zehaztuko dizkio. Akordio akademikoa 3 pertsonak sinatu beharko dute: ikasleak, HUHEZIKO nazioarteko arduradunak eta kanpoko unibertsitateko arduradunak.

Akordio akademikoan, kanpoan egingo diren materialak edo ikasgaiak eta HUHEZIn balioztatuko diren moduluak jasoko dira. Ezinbestekoa da akordio akademikoak zehazten dituen ikasgaiak/moduluak egoki jasota egotea.

Litekeena da, behin kanpoko unibertsitateara heldutakoan, akordio akademikoko ikasgaiak edo moduluak aldatu behar izatea, ikasi beharreko ikasgaien irakaskuntzarekin erlaziozko ustekabekoen ondorioz. Kasu horretan, nazioarteko koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko du ikasleak, aldaketaren oniritzia jasotzeko.

Atzerriko unibertsitateak eskaintzen duen programa guztiz presentziala ez bada, hau da, modalitate erdi-presentziala edo online modalitatea eskaintzen badu haren egokitasuna aztertuko dute Nazioarteko Batzordeak eta titulazioko koordinatzaileak. Onarpen hori gabe, ikasleak ezingo du programa horretan parte hartu.

Erasmus+ programan, online beteko da, kasu batzuetan, akordio akademikoa. Kanpoko unibertsitateak zehaztuko du prozedura.

1.2.5. Egonaldiaren aurretik aurkeztu beharreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+)

Europar Batasuna eta Europar Batasunarekin harreman berezia duten herrialdeak hartzen ditu kontuan Erasmus+ programak (ikus 7.1. ERASMUS+ BEKA atala). Programa horretan egonaldia egingo duten ikasleak Erasmus+ hitzarmena eta ikaslearen adierazpen arduratsua sinatu beharko dituzte. Horrez gain, dagokion OLS hizkuntza proba egin beharko dute. Horretarako, posta elektronikoko mezu bat jasoko du ikasleak, Mobility Tool plataformaren bidez. Nazioarteko Batzordeak jakinaraziko dio ikasleari prozesuaren hasiera data. Mezuan jasotzen den prozesua ezarritako epeetan bete beharko du ikasleak.

Erasmus+ programan bekaren ordainketa kudeatu ahal izateko, ezarritako epe eta moduan aurkeztu beharko ditu ikasleak Nazioarteko Batzordeak eskatzen dituen gainerako dokumentuak (osasun txartela, bidaia egiaztatze dagokion agiria, eta abar).

HUHEZIK ikaslearen izenean kudeatuko ditu beharrezkoak diren aseguruak, eta dagokion ordainketaren kargua jasoko du ikasleak (ikus eranskinak). Ikasleak ordainduko du Erasmus+ programako aseguruaren gastuaren % 100. Kontu korrante bidez egingo du ordainketa.

1.2.6. Egonaldiaren aurretik aurkeztu beharreko beste dokumentu batzuk (SICUE, Latinoamerika eta Mundua)

Hiru programa horietan, akordio akademikoa sinatu beharko dute ikasleek, eta dokumentu horretan agertuko dira kanpoan egin beharreko ikastaro, ikasgai edo moduluak. Gerta daiteke akordio akademikoko ikasgaiak edo moduluak aldatu beharra, kanpoan ikasi beharreko ikasgaien irakaskuntzarekin erlazionatutako ustekabekoen ondorioz. Kasu horretan, nazioarteko koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko du ikasleak, aldaketaren oniritzia jasotzeko.

HUHEZIK ikaslearen izenean kudeatuko ditu beharrezkoak diren aseguruak, eta dagokion ordainketaren kargua jasoko du ikasleak. HUHEZIK ordainduko du aseguruak sortutako gastuaren % 50 (ikus eranskinak).

Europar Batasunetik kanpoko herrialde batzuetan, dagokion BISA kudeatu beharko du ikasleak. Ikasleari dagokio BISAREN tramitazio osoa egitea. Egonaldiaren hasieran, MUDel-era igo beharko du BISA agiria.

1.3. MATRIKULAZIOA HUHEZIK

Ikaslea une oro izango da juridikoki Mondragon Unibertsitateko ikaslea, ikasketa truke egoeran, eta Mondragon Unibertsitatearen ohiko matrikula tasak ordaindu beharko ditu.

Ikasleak HUHEZIKO matrikula prozedura beteko du.

1.4. KREDITUAK BALIOZKOTZEA

Egonaldian zehar, kanpoko unibertsitateak ezarriko ditu ebaluazio irizpideak.

Egonaldiaren amaieran, kanpoko unibertsitateak noten ziurtagiria emango dio ikasleari: Transcript of Records (TOR). Ikaslearen ardura da dokumentu hori dagokion eran eta ezarritako epean jaso duela ziurtatzea. Noten dokumentua MUDle-ra igo beharko du ikasleak.

Baliozkotuko den gehienezko kreditu kopurua 1.4.1., 1.4.2. eta 1.4.3. puntuetan zehazturiko taulen arabera izango da.

HUHEZIK baliozkotze globala egiten du gaitutako ECTS-en artean, hau da, kanpoko unibertsitatean gaitutako nota guztien batezbesteko haztatua. Kanpoko unibertsitateak noten agirian seihilekoaren batezbesteko haztatua jasotzen badu, kalifikazio hori hartuko du kontuan HUHEZIK baliozkotzerako.

Entregatutako notetan gaitutu gabeko ikasgairik badago eta ikasgai horrek 6 ECTS edo gehiago baditu, ez da kontuan hartuko batezbesteko haztatua kalkulatzeko orduan. Era berean,

titulazioko koordinatzaileek identifikatuko dute HUHEZIKo ikasgaietatik zein utziko duten baliozkotu gabe eta, beraz, gainditu gabe.

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleek gure graduko 30 ECTSen baliokidea den ECTS edo kreditu kopurua aukeratu behar dute kanpoko unibertsitatean. Izan ere, ECTS bakoitzari esleitzen zaion ordu kopurua aldatu egin daiteke herrialdearen arabera.

3. mailako ikasleek atzerrian egingo dituzte Garapen Profesionala Enpresetan (Practicum) moduluaren 18 ECTStik 9. Beraz, kanpoko unibertsitatean lortutako nota guztien batez besteko kalifikaziotik eta praktikan jasoko duen kalifikazioaren batezbestekotik aterako da modulu horretako kalifikazio orokorra. Modulu hori ez da agertuko ikasgai baliozkotu moduan, ez baita osorik atzerrian egiten.

4. mailako ikasleei, berriz, Garapen Profesionala Enpresetan (Practicum) moduluaren 12 ECTStik 6 baliozkotuko zaizkie kanpoko unibertsitatean lortutako kalifikaziotik. Gainontzeko 6 ECTSak aukera askeko kredituen bidez erdietsiko dituzte, modulua gainditzeko.

HUHEZIKo gradu guztietan, ikasle batek gainditu gabeko ECTSak baditu eta ECTS horiek **atzerrian gainditzeko aukerarik ez badu**, HUHEZIk etortzen denean, indarrean dagoen araudi akademikoa aplikatuko zaio. HUHEZIk ez dago ECTSak berreskuratzeko aukerarik. Ondorioz, graduoko koordinatzaileek adieraziko diote ikasleari zer modulutan matrikulatu beharko duen hurrengo ikasturtean kanpoan gainditu ez dituen kredituak lortzeko.

Kanpoko unibertsitateak Transcript of Records (TOR) dokumentuan adierazitako kalifikazio sistema Espainiako unibertsitateen kalifikazio sistemara bihurtuko da. Horretarako, Espainiako Hezkuntza Ministerioak (MEFP) jasotzen dituen taulak hartuko ditugu erreferentzia gisa.

«Approved/passed» edo «Fail» balioespenekin jasotako TORak honela kalifikatuko ditu HUHEZIk: «Fail» balioespena 4 kalifikazioarekin adieraziko du, eta «Passed/Approved», berriz, 7,5 kalifikaziora bihurtuko du.

Atzerriko egonaldiko azkenengo asteetan (urtarrilean, adibidez), HUHEZIKo modulua ere egin beharko du ikasleak; horretarako, irakaslearekin harremanetan jarriko da, modulua atzeritik egiteko aukerak aztertzeko. HUHEZIk itzultzean hasita dagoen modulu batean sartu behar duen kasuetan, irakasleek erraztu egingo diote eskola dinamiketan murgiltzea, eta ikasleak ere ahalegin bera egin beharko du.

1.4.1. Baliozkotzeak: hezkuntzako graduak

3. MAILA		
1. seihilekoa		
Haur Hezkuntza		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Esperimentazioa ingurune natural eta sozialetan	GH5302	8
Komunikazioaren eta adierazpenaren garapenerako inguramendu hezitzaileak	GH5301	8
Practicum III	GH5303	8

Lehen Hezkuntza		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Pentsamendu kritikoaren garapena LHn	GL5301	8
Esku-hartzea eleaniztasunaren garapenerako	GL5302	8
Practicum III	GL5303	8

**Aldaketak egon daitezke*

4. MAILA		
1. seihilekoa		
Haur Hezkuntza		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Hezkuntza berrikuntzarako tresnak eta metodologiak	GH5401	12
Diziplinartekotasunetik antidiziplinetara	GH5402	8
Lehen Hezkuntza		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Hezkuntza berrikuntzarako tresnak eta metodologiak	GL5401	12
Diziplinartekotasunetik antidiziplinetara	GL5402	8

**Aldaketak egon daitezke*

1.4.2 Baliozkotzeak: Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua

3. MAILA		
1. seihilekoa		
«Ikus-entzunezko sormena» ibilbidea		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Sormen idazketa	G13302	6
Mundu garaikidearen oinarriak eta errepresentazioa	G13303	6
Ikus-entzunezko sormen interaktiboa	G13306	9
Garapen profesionala enpresetan (Practicum)	G13301	9*
«Komunikazio digitala» ibilbidea		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Mundu garaikidearen oinarriak eta errepresentazioa	G13303	6
Komunikazio digitalaren estrategia eta kudeaketa	G13307	15

Garapen profesionala enpresetan (Practicum)	GI3301	9*
2. seihiakoa		
«Ikus entzunezko sormena» ibilbidea		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Garapen profesionala enpresetan (Practicum)	GI3301	9*
Fikzioa eta dokumental garaikidea sortzea	GI3305	15
Ikus-entzunezkoen sustapena eta banaketa	GI3304	6
«Komunikazio digitala» ibilbidea		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Garapen profesionala enpresetan (Practicum)	GI3301	9*
Sormen idazketa	GI3302	6
Marketin digitala eta publizitate-errealizazioa	GI3308	9
Ikus-entzunezkoen sustapena eta banaketa	GI3304	6

**Ikus 1.4 ataleko azalpenak*

4. MAILA		
1. seihiakoa		
«Ikus-entzunezko sormena» ibilbidea		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Etorkizun joerak eta erronkak	GI3403	6
Garapen profesionalak eta komunikazio enpresen eraketa	GI3401	6*
Formatu eta eduki berriak sortzea	GI3305	18
«Komunikazio digitala» ibilbidea		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Etorkizun joerak eta erronkak	GI3403	6
Garapen profesionalak eta komunikazio enpresen eraketa	GI3401	6*
Kultur ekitaldiak antolatu eta ekoiztea	GI3406	18

**Ikus 1.4 ataleko azalpenak*

1.4.3 Baliozkotzeak: Humanitate Digital Globalak gradua

3. MAILA		
MODULUA	KODEA	ECTS KOPURUA
Lidergoa eta komunikazioa	GG1301	6
Bizitza ikasleku – Lifespace learning	GG1303	6
Esku-hartze komunitarioa	GG1304	6

**Aldaketak egon daitezke*

1.5. BIP (BLENDED INTENSIVE PROGRAMMES)

Programa labur eta intentsiboak dira, Erasmus 2021-2027 programa berriaren barrukoak, eta ikasteko eta irakasteko modu berritzaileak erabiltzen dituzte, online lankidetzan barne.

Edozein ikasketa eta ziklotako ikasleengana iristea dute helburu, eta nazioarteko mugikortasun aukera laburragoa eskaintzen diete dena delako arrazoiarengatik denbora luzez lekualdatzeko aukerarik ez duten ikasleei.

Gutxienez 3 herrialdeetako 3 unibertsitate dituen partzuergo batek antolatzen du Erasmus BIP bakoitza. Programa bakoitzari dagokion ECTS kopurua aitortuko zaio ikasleari.

Parte hartzen duten unibertsitateetako irakasleen laguntzarekin, elkarlanean jardungo dute ikasle taldeek, online lanaldi bat eta aurrez aurreko lanaldi bat konbinatuz. Aldi horretan, ikasle

guztiak unibertsitate antolatzailearen herrialdera joango dira egonaldi labur baterako; normalean, astebeterako.

Parte hartzea: Erasmus BIPEk ez dute egutegi finkorik. Mondragon Unibertsitateak (HUHEZIK) BIP batean parte hartzeko aukerarik badu, horren berri emango du ikasleen artean. Proiektuaren arabera aktibatuko du dagokion esleipen prozesua. Espediente akademikoa izango da hautagaien artean esleipena egiteko kontuan hartuko den irizpidea.

Bateragarria izan daiteke BIP programa batean eta beste mugikortasun programa batean parte hartzea ; betiere, bi programak aldi berean ez badira.

BIP egonaldia aktibatzen den momentuan ikasleak beste mugikortasun programa bateko egonaldi bati uko egiten badio, ez du izango BIP egonaldian parte hartzeko aukerarik.

1.6. OSTATUA

Ikaslearen ardura da ostatuaren eskaera egitea. Gomendatzen dugu deuseztapen aseguruaren kontratatzea.

Normalean, HUHEZIK aukeratutako destinoetan, unibertsitateen egoitzetan izaten da ostatua, eta ikasturteko eskaera orokorrarekin batera egiten da ostatu eskaera.

Horrez gain, beste ostatu mota batzuk bilatzeko, lagungarria izan daiteke [Erasmus Play](#) web orria.

1.7. OHARRAK

Ikasleak ezingo du hautatu **ikasturte berean** mugikortasun programak eskaintzen dituen **egonaldi mota bat baino gehiago**. SICUE, ERASMUS+, Latinoamerika eta Mundua ez dira bateragarriak. Bakarra aukeratu beharko du ikasleak. **Practicum programa eta STUDIES programa bateraezinak dira ikasturte berean.**

Buddy programa: ikasleak aukera dauka HUHEZIRA datozen incoming ikasleen harreran eta egonaldian parte hartzeko. Nazioarteko Batzordeak emango du horren berri, dagokion momentuan.

Buddy programan parte hartzeak aukera emango dio ikasleari ekintza hori espediente akademikoan jasotzeko.

2. PRACTICUM EGONALDIAK: ERASMUS+, ESPAINIAKO ESTATUA, LATINOAMERIKA ETA MUNDUA

2.1. AUKERATUA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Hizkuntza ofiziala edo nagusia ingelesa duten destinoetan, esleitutako erakundeak eskatzen duen ingeles maila egiaztatu behar da:

- B2 maila, Cambridge First Certificate, IELTS 5.0 edo TOEFL 500 maila egiaztatu behar da. Bereziki kontuan hartuko dira azken bi urteetan eskuratutako agiriak.
- Ikasleak horrelako ziurtagiririk ez badu, HUHEZIn hizkuntza azterketa egiteko aukera izango du, maila egiaztatzeko.

Eskaera egitean eta destinoa aukeratzean, kontuan izan behar da destino jakin batzuetan **soilik hizkuntza agiri ofizialak** onartzen dituztela. Informazio hori aurkezpenetan emango da.

Ikasleak ezingo du hautatu **ikasturte berean** mugikortasun programak eskaintzen dituen **egonaldi mota bat baino gehiago. Practicum programa eta STUDIES programa bateraezinak izango dira ikasturte berean.** Ikasketa egonaldia aukeratzeko duenak ezin izango du practicum egonaldia aukeratu.

Hezkuntza graduatan ezin izango dira 2 ikasketa egonaldi egin. 3. mailan ikasketen mugikortasun programan parte hartzen duen ikasleek ezin izango dute 4. mailan ikasketen mugikortasun programan parte hartu.

Eskaera egiteko, ezinbestean onartu beharko dira mugikortasun programako araudiak ezartzen dituen baldintzak.

Espediente akademikoa:

- Haur Hezkuntzako edota Lehen Hezkuntzako graduako ikasleek, Practicum egonaldia EAEtik kanpo egin ahal izateko, esleipena egin aurreko ikasturteetako modulu guztiak gaindituta eduki behar dituzte, eskaria egiten den ikasturteko modulu bakar bat eduki dezakete gainditu gabe asko jota, eta hurrengo ikasturtera pasatzeko baldintzak bete behar dituzte (ikus araudi akademikoa).
- Esleipenaren momentuan kalifikatuta dauden modulu guztien batezbestekoa hartuko da kontuan.
- Nahiz eta esleipenaren momentuan baldintza akademikoak bete, ikasturtean zehar Gradu Koordinaio Batzordeak ondorioztatzen badu ikasle batek ez dituela betetzen mugikortasun programan parte hartzeko baldintza akademiko guztiak, araudi akademikoaren arabera, mugikortasun programatik kanpo geldituko da ikasle hori.
- Itxaron zerrendan baldintza akademikoak betetzen dituen ikaslerik badago, hari eskainiko zaio libre geratu den tokia.

Lehenengo egonaldiko praktikak SEASKAko ikastolen sarean egiten badituzu, euskara maila egiaztatu beharko duzu. Erasmus+ Practicum beka lortu nahi baduzu, euskarako B2 agiria eskatuko dizute, edota EGA ziurtagiria. B2 agiririk ez baduzu, aurreko ikasketak egin dituzun ikastetxe/erakundeak erraztuko dizu horretarako bidea.

Oharra: hautatuak izateko orduan, lehentasuna izango dute oraindik atzerrian egonldirik egin ez duten ikasleek. Gure asmoa da ahalik eta ikasle gehienek izatea atzerrian egonaldi bat egiteko aukera.

2.2.PROZEDURA

Atal honetan azalduko dugun prozedura errespetatzen ez duten ikasleak mugikortasun programatik kanpo geldituko dira, Nazioarteko Batzordeak hala erabakitzen badu.

1. Aurkezpenak
2. Eskaera fasea
3. Lekuak
4. Behin-behineko esleipena
5. Behin betiko esleipena
6. Esleitutako destinoa onartzea eta mugikortasun programako ikastaroa egitea
7. Onarpena: azken hitza kanpoko eskola, erakunde edo enpresak izango du beti.
8. Logela eta bidaia: ikaslearen ardura da. Deuseztapen aseguruua kontratatzea gomendatzen dugu.

m
Mondragon
Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

PRACTICUM EGONALDIEN PROZESUA

- 1 AURKEZPENAK**
- 2 ESKAERA FASEA**
- 3 LEKUAK**

Hezkuntza Graduetako ikasleei Mondragon Unibertsitateak (HUHEZIK) bilatuko dizkie lekuak. Ikasleak ezingo du inolaz ere kanpoko eskolekin harremanetan jarri. HDGko GBLen kasuan, ikasleek izan beharko dute erakundearekin lehen harremana eta graduako koordinazioak baliozkotu beharko du.
- 4 BEHIN BEHINEKO ESLEIPENA**
- 5 BEHIN BETIKO ESLEIPENA**
- 6 ESLEITUTAKO DESTINOAREN ONARPENA**
- 7 KANPOKO ESKOLA, ERAKUNDE EDO ENPRESAREN ONARPENA**

Azken hitza kanpoko eskola, erakunde edo enpresak du beti.
- 8 LOGELA ETA BIDAIA**

Ikaslearen ardura da. **Deuseztapen** aseguruarekin kontratatzea gomendatzen da.

Mondragon Unibertsitatearen (HUHEZiren) ardura
Ikaslearen ardura
Kanpoko Eskolaren ardura

Humanitate Digital Globalak graduako GBLen Euskal Herritik kanpoko bi hilabeteko egonaldia egiten duten ikasleen kasuan, haien ardura izango da elkartarekin edo enpresarekin lehen harremana egitea. Ondoren, graduako koordinazioak baloratuko du proposamena, hura baliozkotu edo atzera botata.

2.2.1. Aurkezpenak

Aurkezpenak egingo dira HUHEZiren 3 campusetan (Aretxabaleta, Bilbao AS Fabrik, Eskoriatza). Aurkezpenetan, mugikortasun programan parte hartzeko prozedura azalduko dugu, eta dokumentazio eta beka aukeren berri emango. Informazio guztia eta eskaera orria MUDle-n daude eskuragarri.

Ikasleak MUDle plataformara igo behar ditu eskaera orria eta hizkuntza gaitasunaren agiria. Gustukoaren dituen aukeren arabera ordenatu beharko du destinoen zerrenda, eta kontuan izan behar da deialdi bakarra egoten dela ikasturte bakoitzean. Behar duenak hizkuntza probak egingo ditu Fakultatean bertan.

Eskaera egin ahal izateko, ezinbestez onartu beharko dira mugikortasun programako araudiak ezartzen dituen baldintzak.

2.2.2. Destinoen esleipena

Egonaldiko destinoen esleipena egiteko prozesua honako hau izango da:

1. Eskaera guztiak aztertu ondoren, EAetik kanpo egonaldia egingo duten ikasleak aukeratuko ditu HUHEZIKo Nazioarteko Batzordeak, irizpide hauek kontuan izanda:
 - Espediente akademikoa
 - Hizkuntza maila egiaztatzea
2. Esleipenak MUDle-n argitaratuko dira, dagokion epean.
3. **Behin betiko esleipen hori astebeteko epean onartu edo uko egin beharko dio ikasleak**, MUDle-n aktibatuko zaion atalean. Behin onartuta ez da aldaketarik ez eta ukorik ere onartuko. Onarpenik ematen ez duten ikasleen kasuan onartutzat emango da esleitutako behin betiko destinoa, eta ez da aldaketarik ez eta ukorik ere onartuko.

Mugikortasun programan parte hartzen duen ikasleak uko egiten dio EAEn egonaldi horretan lekua izateari.

Oharra: azken hitza atzerriko eskola edo erakundeak izango du. Gerta liteke eskola edo erakundeak unerren batean eskatzea elkarrizketa bat izatea, Skype edo Meet bidez.

2.2.3. Hitzarmena

Ikasleak hitzarmena edo Learning Agreement dokumentua sinatuko du. Dokumentu horren kudeaketa HUHEZIKo Nazioarteko Batzordeak egingo du. Erasmus+ programan parte hartuko duten ikasleek ere sinatu beharko dutenez, haiei ere helaraziko zaie dokumentua.

2.2.4. Egonaldiaren aurretik aurkeztu beharreko beste dokumentu batzuk (Erasmus+)

Erasmus+ programan parte hartzen duten ikasleek Erasmus+ hitzarmena eta ikaslearen adierazpen arduratsua sinatu beharko dituzte. Horrez gain, dagokion OLS hizkuntza proba egin beharko dute. Horretarako, posta elektronikoko mezu bat jasoko du ikasleak, Mobility Tool plataformaren bidez. Nazioarteko Batzordeak jakinaraziko dio ikasleari prozesuaren hasiera data. Mezuan jasotzen den prozesua ezarritako epeetan bete beharko du ikasleak.

Erasmus+ programan bekaren ordainketa kudeatu ahal izateko, ezarritako epe eta moduan aurkeztu beharko ditu ikasleak Nazioarteko Batzordeak eskatzen dituen gainerako dokumentuak (osasun txartela, bidaia egiaztatzeko dagokion agiria, etab.).

HUHEZIK ikaslearen izenean kudeatuko ditu beharrezkoak diren aseguruak eta dagokion ordainketaren kargua jasoko du ikasleak. Ikasleak ordainduko du Erasmus+ programan aseguruak sortutako gastuaren % 100. Kontu korrante bidez ordainduko da.

[Ikus eranskinak]

2.2.5. Egonaldiaren aurretik aurkeztu beharreko beste dokumentu batzuk (Espainiako estatua, Latinoamerika eta mundua)

Kasu horietan, HUHEZIK eta kanpoko erakundeak sinatuko dute praktiken hitzarmena.

HUHEZIK ikaslearen izenean kudeatuko ditu beharrezkoak diren aseguruak, eta dagokion ordainketaren % 50eko kargua jasoko du ikasleak (ikus eranskinak).

Europar Batasunetik kanpoko herrialde batzuetan, dagokion BISA kudeatu beharko du ikasleak. Egonaldiaren hasieran, MUDel-era igo beharko du.

2.3. MATRIKULAZIOA HUHEZIn

Ikaslea une oro izango da juridikoki Mondragon Unibertsitateko ikasle, truke egoeran, eta ohiko matrikula tasak ordaindu beharko ditu Mondragon Unibertsitatean.

Ikasleak HUHEZIKo matrikula prozedura beteko du.

2.4. OSTATUA

Ikaslearen ardura da ostatuaren eskaera egitea. Gomendatzen dugu deuseztapen aseguruak kontratatzea.

Beste ostatu mota batzuk bilatzeko, lagungarria izan daiteke [Erasmusplay](#) web orria.

Atzerriko unibertsitateek informazio orokorra ematen dute ikasleei bidalitako mezuetan.

3. AMAIERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Egonaldia bukatu eta gehienez ere 25 egunera, atal honetan azalduko ditugun dokumentuak aurkeztu beharko ditu ikasleak, MUDle plataforman, nazioarteko mugikortasunaren atalean.

3.1. ERASMUS+ STUDIES EGONALDIA

- **Transcript of Records (notak).** Kasu batzuetan, ikasleei ematen dizkiete, eta, beste batzuetan, plataforma batean jartzen dituzte, ikaslearen eskura. Ikaslearen ardura da hori lotzea eta bideratzea.
- **Learning Agreement-a edo akordio akademikoa.** Hiru sinadurarekin (ikaslearena, HUHEZIKo nazioarteko arduradunarena eta atzerriko unibertsitatearena). Dokumentu hori online bete behar da, egonaldia hasi baino lehen, eta amaieran entregatu. Nazioarteko Batzordeak azalduko duen prozesuaren arabera bete beharko du ikasleak (eskuliburuak MUDle plataforman daude eskuragarri).
- **Certificate of Attendance edo Certificate End of Studies** gauza bera dira. Ziurtatu bi dokumentuetan jasotzen diren datak bat datozela Erasmus hitzarmenak jasotzen dituenekin.
- **Balorazioa.** MUDle plataforman bete behar da. Balorazioaren helburua informazioa datorren urteko ikasleekin partekatzea eta guk destinoaren egokitasuna baloratzea da.
- Erasmus+ programaren barruan bekaren ordainketa kudeatu ahal izateko, beste dokumentu batzuk ere eskatuko ditu Nazioarteko Batzordeak (bidaia egiaztatzeko dagokion agiria, eta abar).

3.2. ERASMUS+ PRACTICUM EGONALDIA

- **Learning Agreement-a edo akordio akademikoa.** Hiru sinadurarekin (ikaslearena, HUHEZIKo arduradunarena eta atzerriko erakundearena). Dokumentu hori egonaldia hasi baino lehen bete behar da, eta amaieran entregatu.
